



MIRAMAR JAUREGIA PARTZUERGOA

Sozietatearen izena

Miramar Jauregia Partzuergoa.

IFK

G20148961

Izaera

Partzuergoa (bere eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko, Toki Erregimeneko legerian aurreikusitako fundazio Publikoaren eredia erabiltzen du).

Kontabilitate-arabidea

Publikoa.

Aurrekontu-arabidea

Mugatzaila.

Sorrera

1985eko urtarrilaren 3an, partzuergo bat eratu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Udalaren parte-hartzearekin, eta "Arte modu berrien ikerketa eta erakusketen zentroa" izena eman zioten. Urriaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen aurreko partzuergoan integratzea, estatutuak aldatu ondoren, eta ondoren, 1985eko urriaren 29an, egungo partzuergoa sortu zen "Miramar Jauregia" izenarekin, eta Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako udalaren parte-hartzearekin.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

EJSN

9499 Beste leku batzuetan jaso gabeko elkartzetxe-jarduerak.

Sozietatearen helburua

Miramar Jauregiko eraikinaren kultura-xedeetarako erabilera egokia antolatzea du xede nagusizat, eta, esparru horren barruan, honako helburu hauek proposatzen dira:

- a) Eraikineko gela eta dependentsiak erabiltzea Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroak emateko.
- b) jauregiko dependentsia jakin batzuk gaitzea, bertan Eusko Ikaskuntzaren zerbitzuak ezartzeko.
- c) Eraikinean kultura-arloko ekimenak kokatzea.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Sozietatearen Funtsa

468.654 €

Erakundeek 2012ko ekitaldian egindako ekarpenak

EAEko Administrazio Orokorra % 33,33

Gipuzkoako Foru Aldundia	% 33,33
Donostiako Udala	% 33,33



Zuzendaritza Batzordea

Partzuergoan bildutako hiru erakundeek batera gidatuko dute patronatua Zuzendaritza Batzordearen bitartez, eta Batzorde hori honela osatuko da:

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo sailburua presidentea izango da, edo hark horretarako eskuordetutako pertsona.
- Eusko Jaurlaritzak izendatutako hiru bokal.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako hiru bokal.
- Donostiako Udalak izendatutako hiru bokal.
- Euskal Herriko Unibertsitateak izendatutako bokal bat.
- Zuzendariak idazkari gisa jardungo du, eta hitz egiteko aukera izango du, baina ez botoa ematekoa.

2013ko Aurrekontuen Likidazioa eta Urteko Kontuak

[2013ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	2.936.628 €
Ondare garbia	2.753.717 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	493.042 €
Batez besteko langile-kopurua	4

Sozietatearen helbidea

Miramar Jauregia-Mirakontxa, 48 - 20007 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)

Webgunea

www.sc.ehu.es/palaciomiramar